



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ros**
Egilea / Autor: **Miren Agur Meabe**
Irudigilea / Ilustradora: Estibalitz Jalón
Saila / Colección: Sasi guztien gainetik, 26
ISBN / EAN: 978-84-9109-036-6
Salneurria / Precio: 7 € (BEZ barne – IVA incluído)
Adin gomendatua / Edad recomendada: 6-8
Orri kopurua / N° páginas: 28
Formatua / Formato: 20 x 20 cm

Lana / La obra

Garik sei urte ditu, eta haurtxo bat balitz bezala maite eta zaintzen du Ros astakumea. Izan ere, benetako amak baztertu duenetik (animalien munduan batzuetan gertatzen den moduan), jaioberriak amatzat hartu du mutikoa. Egoera hori deskribatzen da ipuinean.

Halaxe, nortasunaren transferentzia eginda —haurra izanik Garik gurasoaren papera jokatuko duelako astotxoarekin— premia goiztiarren berri ematen zaigu oso modu xumean: elikadura, higiena, jolasa, afektibitatea, irudimena eta esperimentazioa, adibidez.

Bestalde, Garik bere burua “ama” izendatzeak (ez “aita”) genero-rolari buruzko ikuspegiak pentsatzeko bidea eman nahi luke. Hala ere, funtsean kontzeptu biologiko eta psikologiko bat islatu nahi izan da: az-tarnaren fenomeno (gatzelaniaz impronta); hau da, gizaki edo animalia gazteen ikaskuntza-prozesuan lehenbizi ezagututako estimuluek duten marka.

Estiloari dagokionez, azpimarratzekoak dira, batetik haur-hizkeraren erabilera —hotsitzak, lexiko espe-zifikoa, deiturak, interjekzioak...—, eta bestetik, usadiozko haur-kanten uztarketa.

Estibalitz Jalónen ilustrazioek pertsonaien arteko harremanaren samurtasuna areagotzen dute.

Egilea / El autor

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962). Irakaslea eta eskolarako liburuen editorea izan naiz urte askoan, baina idaztea niretzat beti izan da biziago sentitzeko modu bat. Poesia eta haur eta gazteenzako lanak idatzi ditut batez ere, azken horien artean *Mila magnolia-lore*, *Izar bat zopan*, *Urtebete itsasargian* edo *Errepidea*. Nire liburuetakoko batzuek sari garrantzitsuak jaso dituzte.

Estibalitz Jalónek ilustrazio ikasketak egin zituen. Bi urtez jarraian Laudioko ilustrazio Saria irabazi zuen, eta 2009an III. Etxepare Beka irabazi zuen euskaraz egindako haurrentzako album proiektu onenari emandako saria. Beste batzuen artean, liburu hauek ilustratu ditu: *Xirripin Fantasmatoxa*, *Dimitri*, *Salimarentzat Oparia*, *Garazi Gerezi*, *Katalina Kontalari*, *Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska*, *Bihotzaren Mekanika* eta *Nire lagunen gezurrak*.



Miren Agur Meabe

2015